

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

141

1504/2020 EBAZPENA, abenduaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen den eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Farmaziako Laguntzailea kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan izanik.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA 28. zk.).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 141/2018 Ebazpenaren bidez, Teknikari Laguntzaile Sanitarioak lanbide-taldeko Farmaziako Laguntzailea kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobak deitu ziren, destinoa Osakidetzako zerbitzu sanitarioen erakundeetan izanik (2018ko otsailaren 15eko EHAA 33. zk.).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 20ko 821/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetzaren webgunean argitaratzeko agindu zen oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Teknikari Laguntzaile Sanitarioak lanbide-taldeko Farmaziako Laguntzailea kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobei dagokien puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetzako zerbitzu sanitarioen erakundeetan izango dute destinoa.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Farmaziako Laguntzailea kategorian izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako webgunean argitaratzeko agintzea eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Teknikari Laguntzaile Sanitarioak lanbide-taldeko Farmaziako Laguntzailea kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena, edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuaren nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko deklarazio bat edo hitzemate bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez daudela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikoetan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzea eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetzan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginbideak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuaren barruan esleitu zaien erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2021eko urtarrilaren 14a, osteguna

ERANSKINA
2016-2017ko OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA
DESTINOEN ESLEIPENA
KATEGORIA: FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA
TXANDA: IREKIA

| NAN/AIZ | Izangaia | Destino esleitua | Derrigorrezko data | |
|-----------|---|---|--------------------|------------|
| ***9830** | Perez Lamelas, Rut | Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***6874** | Sanz Figueirido, Zuriñe | Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***6428** | Huerta Barbero, Eder | Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***7847** | San Sebastian Camiruaga, Maria Aranzazu | Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***8871** | Azkona Zubeldia, Maria | Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***4344** | Ereño Apraiz, Elkuden | Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***6892** | Fernandez Gilisagasti, Amaia | Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | 2013-12-03 |
| ***6427** | Mateos Yañez, Elixabete | Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***9395** | Sanchez Fradejas, Veronica | Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***7591** | Abajo Ruiz, Salvador | Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***2101** | Jimenez Aguado, Davinia | Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***1741** | Urtiaga Obregon, Eneritz | Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***8928** | Villarroya Eizmendi, Aloña | Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***5046** | Martin Alda, Edurne | Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***6855** | Unibaso Garaizar, Leire | Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***2675** | Santolaya Malo, Haizea | Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |

2021eko urtarrilaren 14a, osteguna

| NAN/AIZ | Izangaia | Destino esleितua | Derrigorrezko data | |
|-----------|------------------------------|---|--------------------|------------|
| ***8793** | Grajeras Alt, Marcos Fidel | Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***6540** | Dorado Estevez, Sehila | Goierri-Urola Garaiko ESla, Zumarragako Ospitalea | 2HE | 2014-12-09 |
| ***3488** | Alonso Mate, Maria Lorena | Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***8894** | Lombera Saez, Laura | Santa Marina Ospitalea, Santa Marinako Ospitalea | 2HE | |
| ***8236** | Olabuenaga Romero, Izaskun | Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***5045** | Alzaga Lizarralde, Amaia | Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***7378** | Benavides Robredo, Maria Luz | Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***9120** | Zorrilla Marian, Zuriñe | Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea | 2HE | |
| ***6484** | Rodriguez Azueta, Gema | Debagoieneko ESla, Debagoieneko Ospitalea | 2HE | 2013-12-03 |